

GURE AITA-AMA JAUNGOIKOA

Doinua: "Uso zuria"

1

Hau da nire sinismena,
hau da nire zoramena!
Zeru ta lurren Egile Jaunak
AITA dauala izena!
Jesusek dino AITA zarala
eta Aitarik amena (bir).

2

Jesusek esana baita
Zu zarala gure Aita.
Bizitzan dana geure onean
dator Zeuk holantxe nahita;
honetan beti ziur gagoz gu,
gaituzulako hain maita (bir).

3

Zugan dogu hasiera
eta Zugan amaiera.
Mundu honetan badoguz, Aita,
makina bat gorabehera,
lagun eiguzu bizi gaitezan
beti zure esanera. (bir)

4

Zer poz eta zer gozamen,
nork egiz dastatu leiken!
Espiritua, lagun eiguzu
ABBA-AITATXO esaten,
eta Jesusen jarrera hartzen:
"Aitatxo, hona ni hemen"! (bir)

A: Martzel